

Ez dakit

Egia esateko gauza bat bukatzen aritu naiz Gabon aurretik, eta gero oporretan lo eta jan baino ez dut egin. Artikulu hau entregatzeko aurreko egunean berean akordatu nintzen egin egin behar nuela, eta ez da gure nagusiaren errua, nirea baik; ez dakit, aspaldi honetan errealitateak halako mizkinkeria bat sortzen dit eta ihes egiten diot, nire mundu txikian sartzen naiz: bikote kidea, familia, adiskideak, liburuak, musika eta gutxi gehiago. Norbaitek “burgeskieriak” esanen luke. “Narratibarik eza”, dei diezaiokegu Urren hitzetan.

Klaro, zuen artikuluak leitu ditut zertan ari garen jakiteko eta betikoan ari garela ikusi dut. Betikoan, betikoan, betikoan. Horregatik ez nuen nahi errealitatera, zutabe honetara itzuli nahi. 18/98 auziarena eskandalagarria da, Josi, bai, hala da, estatu demokratikoaren araurik oinarritzkoenak urratzen ditu, bai, hala da baina hil zituzten guardia zibilen heriotza ere eskandalagarria da, eta uste dut bat ez salatzeak bestearen salaketari indarra kentzen diola. Eta denbora dezente doa gure izenean jendea hiltzen dela. Gure izenaren kontra ere jendea hiltzen da, legeak urratu...

Bai, esana duzue, nekea. Ez dut errepikatuko.

Narratiba handiei buruz aritu zen Ur. Narratiba handien itzulera minez bukatzen zuen artikulua. Benetan, Ur, haien minez?

Ni ez nago hain seguru. Narratiba handia izan da Marxismoa eta haren gauzatzea, eta egia da onura bezainbat kalte ekarri dituela. Kubako kasua begiratzeari besterik ez dago.

Narratiba handia izan da Progresoa ere. Arropa garbigailua ekartzeaz gainera Kolonizazioa ere sortu zuen. Ez dago dudarik Ilustrazioaren narratibak onura ikaragarriak ekarri zituztela gizakiari, batez ere zuriari eta europarrari, eta



JUDIT FERNANDEZ

Juanjo Olasagarre

Apalategi

Basterrvetxea

horrexegatik ez horrenbeste beltzari edo hinduari.

Ez dakit. Ez dakit narratiba handiak behar ditugun bizitzeko. Beharbada horiek gabe hobe gaude. Edo beharbada horiek gabe makurrago. Ez dakit. Baina ikasten ari naiz “ez dakit” horretan bizitzen. Hasieran asaldatu egiten zaitu erantzunik ez edukitzeak, erantzunik edukitzera ohituta baitzaude. Gora begiratu eta

ez daukazu narratibarik.

Beno, bada ez dakit. Ez dakit, demagun, arau moralek unibertsalak izan behar duten. Eta baiezkoan nagoela ezezkoaren kalteak ere ageri zaizkit. Izan ere, mila galderen artean bat egiteagatik, zertan jarraitu behar dio afrikar batek Europaren bihotz zurian sortutako arau moral bati?

Nahi baduzue hasierara itzul gaitezke. Narratiba handiaren izenean onartzen zen 80ko hamarkadan norbait arrazoizko politikoenak hiltzea, gaur narratibarik gabe ez da horrenbeste onartzen. Onura bat.

Baina narratiba ezak biluzik utzi gaitu eta hori interesgarria iruditzen zait. Zuk zerorrek pentsatu behar izateak zer den ongi eta zer gaizki, beharrezko ariketa egiteaz gainera gizakiago izateko aukera eskaintzen dizu; eta badakit “gizakiago” hori narratiba handira lerratzen dela.

Bai, ez dakit, eta gainera, garai gogorak bizi ditugu. Baina ez dakit lehenagokoak baino gogoragoak diren, ez dakit narratiba handiekin hobe biziko ginatkeen, ez dakit hau hobetzerik badagoen, ez dakit hobetzeko metodorik baden, ez dakit arau unibertsalik baden, ez

dakit esaten duten bezala XX. Mendea menderik krudelena izan den.

Dakidana zera da, bizi beharra dugula. Eta hemen bizi eta orain bizi. Jakin baino gehiago bizi, egunerokoarekin moldatu, gauza txikiak atondu, adiskideei deitu, bikote kidea zaindu, familia babestu... Ezdeuskeria bat, bai badakit, baina hori da bizia, ezdeuskeria zoragarri bat. ■



Dakidana zera da, bizi beharra dugula. Eta hemen bizi eta orain bizi. Jakin baino gehiago bizi, egunerokoarekin moldatu, gauza txikiak atondu, adiskideei deitu, bikote kidea zaindu, familia babestu... Ezdeuskeria bat, bai badakit, baina hori da bizia, ezdeuskeria zoragarri bat